

«Zaindu zaitzatela zuen aita edo ama santisimak»

Amagoia Mujika
Telleria

Felix Zubia medikuak oso garbi esan du noraino dagoen bere bu-
rua zaintzen ez duen jendarte
bat zaintzeaz; hasi agintariekin
eta segi herritarrekin, «zaindu zaitzatela
zuen aita edo ama santisimak». Aspaldi
entzun dudan esaldi onena da. Badakit,
era berean, esaldia bota orduko haserre-
ari profesionaltasuna gailendu zaiola
eta lehen lerroan jo eta su lanean segi-
tzen dutela Zubiak eta beste hainbeste
osasun langilek. Ez dakite bestela egiten.
Baina sekulako lasaitua sentitu dut Zu-
biak bere haserrea horrela erakutsi due-
lako. Zer demontre, osasun langileak
oso nekatuta egoteaz gain oso haserre
daude.

Haserre giro orokortua arnasten da
kalean, musukoetatik gainezka egiten
duena; agintarien barrabaskeriak,
arauak eta mugak, mugak eta arauak,
kontraesanak eta protokoloen zentzu
eskasa, normaltasun falta, askatasun
egarria, beldurra, ziurgabetasuna... Ha-
serre egoteko arrazoirik ez zaio inori fal-
ta. Baina osasun profesionalen aurrean
jar gaitezen tente. Zabor poltsak jantzita
atera ziren ezezaguna zen birus baten
aurrera bizitzak salbatzeko. Urtebete be-
randuago, lehen lerroan jarraitzen dute
lanean. Eta norbera babesteko ekipa-
mendua erantzten dutenean, beren lan
baldintzen alde borrokan segitu behar
dute. Txertatuak izateko eskean. Tristeia

da. Beren lana ondo egin beste kezkarik
ez lukete izan behar, baldin eta aginta-
riek osasun arloa merezi duen tokian
kokatuko balute.

Zainduak izateko beharra izan dugu-
nak oso ondo zainduak sentitu gara;
telefonoaren bestaldean ahots atsegi-
nak eta pazientzia sumatu ditugu beti.
Profesionalek zainduak ginela sentitu
dugu.

Eta zer esan senide eta lagunei buruz.
Egunero ogia atean, harakinak etxerai-
no ekarritako poltsak, postaz iritsitako
San Blas opila... sare baten parte ginela
sentitzea botika ederra izan da. Eta osa-
suna aldrebestuz gero Zubia eta konpai-
nia hor zeudela jakitea, lasaitua. •

Normalizaziorantz

Koldo Sagasti

Garai zoro hauetan sarritan en-
tzun dugu normaltasun berri
batean bizi garela. Baliteke ho-
rrela izatea, baina ez koronabi-
rusaren izurritearen aurretiko egoerara
inoiz bueltatu garelako, baizik eta duela
urtebete eskas sinestezinak ziruditen
egoerak egun normaltzat hartzen hasiak
garelako. Garai batean, adibidez, eskan-
dalurako motiboa ziren indar polizialen
gehiegikeriak. Izan baziren, eta ez gutxi-
tan, baina gehienetan gizartearen zati
baten gaitzespenarekin egiten zuten tal-
ka. Bizi dugun distopia honetan, aldiz,
poliziak, edozein koloretakoak direlarik
ere, harrotuta dabilta, pandemiaren ai-
tzakian inpunitate osoz joka dezaketela

jakitun. Ikusiak ditugu gure herrietako
kaleetan, jarrera susmagarriko edozein
oinezko talderen kontra oldartzen, na-
barmenkeriaz armak erakusten, fami-
liak etxetik kaleratzen, grebalariak egur-
tzen, herritarren mugikortasuna
kontrolatzen... eta iritsi gara haien bote-
re jarrera onartzera, komunitatearen
osasun ongizatearen izenean.

Izurritearen aurkako borrokaren ize-
nean iritsi gara onartzera, halaber, osa-
sun sistema sustatzeko beharko lirate-
keen diru funts publikoak istiluen
aurkako polizia taldeen tresneria indar-
berritzera bideratzea. Areago, normalta-
sun berriko garai anormal hauetan,
irents genezakeen guztia irentsita ge-

nuela uste genuenean, iritsi gara entzu-
tera noizbait iraultzailea izan zen era-
kunde politiko bateko arduradun gore-
nari esaten Ertzaintza normalizazio
bidean dagoela, bilakaera bat izan duela,
eta ezker abertzaleari botoa ematen dio-
ten ertzainak dauden bezala, ertzain sar-
tzen diren ezker abertzaleko militanteak
ere badirela. Behinola «Ertzaintza hau
ez da herriarena» esaten zutenek sine-
tsiko zuten, nonbait, polizia normaliza-
tu zitekeela; baina, nago haixek direla
normalizaziorako lasterketa zoroan
daudenak. «Ez dago poliziarik herriare-
na denik» aldarrikatzen genuenok, be-
rriz, ezingo dugu sekula normaltasun
berri hau normaltzat hartu. •